


URPE KAKA RIAK



URPE
KAKA
RIAK

Haurrentzako bertso-antzerkia



SINOPSIA




Galtzerdi eta Leotardo igerilekuan topo egin duten lagun bi dira. Ur bazterrean erdi gogaituta daudela, bihurrikeria bat otuko zaie: zergatik ez hondoko tapoia aurkitu eta igerilekua hustu? Eskura dauzkaten gauzekin urperatzeko jantzia prestatu eta isurbidearen bila abiatuko dira beraiek zelatatzen ari den sorosle petralaren begiradapean.

Murgilaldian zehar etengabe egingo dute topo beren gorputzekin; bakoitzak berearekin nola, lagunarenarekin edo igerilekuko gainontzeko erabiltzaileenekin: umeak, helduak, adinduak, aniztasun funtzionala duten igerilariak... Askotariko sentrazioak izango dituzte (arintasuna, itomena, plazera, hozkirria...) eta lantzean gogoeta txiki bat egiteko aukera emango die sentitu eta ikusten ari diren guztiak.

Hain justu horixe da proiektu honen xedea: modu sotil eta umoretsuan, ikuslerik txikienak beren gorputzei begira jarri eta aniztasunaz, sexualitatez, genero-rolaz... hausnar dezaten zirikatzea.





FITXA ARTISTIKOA

- GIDOIA: Miren Amuriza
eta Ane Labaka
- ZUZENDARIA: Miren Amuriza
- ANTZEZLEAK: Maren Basterretxea
eta Uxue Alkorta

FITXA TEKNIKOA

- NORI ZUZENDUA: Familiarra (5-11 urte moldagarria)
- ESPAZIOA: Oholtzan zein lurrean. Espazio minimoa 4 x 3 m
- LEKUAK: kultur etxeak, antzokiak,...
- IRAUPENA: 60 min
- MUNTAIA : emanaldia hasi baino 120 min lehenago iritsiko da.
- DESMUNTAIA: 30 min.
- AURREKONTUA: 1.290€ + BEZ (%10) soinu-ekipoa barne.
Beti joan behar dute soinu-ekipoarekin.

MAREN BASTERRETXEA (1995)

Arte Dramatikoko Goi Mailako tituluduna naiz; antzerki munduan lan esperientzia haundia daukat eta hainbat konpainiekin jardun naiz: *Bilbao Balioen Hiria* proiektuan (Baleuko), *Miradas de carbon* laburmetraian (Esti Villa), *Lubaki Lainotsua* antzezlanean eta bitartekaritza arduradun gisara (Atx Teatroa), *Kotondarrak* (Anita Maravillas), *Alpistegia* eta *Urpekakariak* antzezlanean (Lanku), eta *Igaro* antzezlari propioan.

Musika munduan ere hizkuntza musikalean, pianoan, panderoan eta trikitixan ikasketak ditut, baita Gasteizko Jose Uruñuela Dantza Kontserbatorioan Ikasketa Profesionaletako lehenengo bi ikasmailak burutuak ere.

UXUE ALKORTA (2001)

Bertsolari zarauztarra naiz. Lehen Hezkuntzako Gradua ikasten jarduteaz gain, Aretxabaletako *Lekaixoka Bertso Eskolako* irakasle, ere, banaiz.

Azken lau urtetako udako oporraldietan aisialdi taldeetan aritu naiz hurrekin lanean, *Gurutxurtu* Aisialdi Taldean eta *Heziby* Aisialdi Elkartearen, hain zuzen ere.

Azken urtean gaztetxoetara eman dut salto *Euskal udalekuetan* eta *Bertso udalekuetan* lan eginez. Antzerkian lehen aldia da profesionalki aritzen naizela, halere, aitortu behar dut beti izan dudala gustuko oholtza gainean aritzea eta hurrekin jolastea.





KONTAKTUA

Marta Agirrezabala Zubillaga

Marketina eta Komunikazioa

marketina@lanku.eus

675716472 - 943 26 07 55

www.lanku.eus